

TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

ARABA



A•25 Jaundel mendiko eremua

Gune honek Toloño–Kantabria mendilerroaren inguruetako eremu menditsu zabal bat barnean hartzen du eta puntu altuena Jaundel mendian du (1.035 m). Kareharrizko amilburuetako espezie ugari duen (hurritzak, gurbea, astigarra eihar italiarra, etab.) tontor arrokatsu eta estutik arian–arian haranerantz jaisten den baso itxia ikus dezakegu. Mendi–hegaletako lurzoru harritsuak baso honetan ezpela ugaria izatea eragiten du, ea ia zeharkazina den kolore berde distiratsuko geruza sortzen. Hareatsugoak diren lurzoruetan maiz topatzen dira pagadiak eta erkameztiak. Merez du, halaber, Navarreteko eta Lagraneko inguruetako ehun urtetik gorako gaztainondoak ezagutzea.

Inguru honetako biztanleek tentuz erabili dituzte mendiko baliabideak eta, horrela, habitat–kopuru handi bat babesten lagundu dute; horrekin batera, ezpelak estaltzen dituen gune batzuetara iristea oso zaila denez, animalia–komunitate oso interesgarria mantendu da bertan. Gune hau, gainera, Arabako hainbat enklabe naturalen arteko korridore biologikoa da, hau da, eskualdeko faunaren artean harremanak izatea eta elkar aberastea ahalbidetzen du.



A•26 Olandinako urmaela

Arabako Mendietako inguru ezezagunetariko bat da. Nagusiki nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen den gune honetako giza jarduera tradizionalki guztiz bateragarria izan da ingurunearekin.

Landutako soroen artean galdurik, hektarea bateko azalera besterik ez duen hezegune honek balio ekologiko handia du. Inguratzen duen baso–zerrenda mehean lizar, astigar eta haritzen ale interesgarriak ditugu, zuhaixka trinkoen eta landare igokariaren artean nahasirik. Zingirako landarediak ia guztiz ezkututzen du urmaeleko gainazala, hainbat anfibio eta hegaztiri aterpea eskainiz. Ur–lamina estuan agian igebelar zuria ikus dezakegu, Erkidego osoan hau baita espezie hori naturalki dagoen toki bakarra.

A•27 Gasteizko Ekialdeko mendiak

Gasteizko mendiek osatutako hesi orografikoak Arabako lurraldea ekialdetik mendebaldera banatzen du, eta Arabako lautada hegoaldeko mugatzen. Mendien ekialdeko alderdiak gailur, sakan eta ibar bide anitzeko erliebe nabarmenez osatutako eremu zabala hartzen du. Horiek guztiek gizakiak ia ukitu ez duen edertasun

handiko paisaia eratzen dute, nagusiki abeltzaintzan aritzen diren eskualdeko landagune urriek biztanle oso gutxi baitituzte.

Eremu honetako habitatak ugariak dira: hostozabalen baso zabalak, sasi–eremu handiak, besteak beste Ayuda ibaiak eragindako sakan ikusgarrietan zehar igarotzen diren ur gardenetako errekek eta enklabe arrokatsu aipagarriak. Enklabe horien zabalera eta jarraipena, gizakiaren eragin txikiarekin batera, bertan bizi diren espezie–kopuru handiak islatzen du; horien artean azpimarratzekoak dira harrapari ugariak.